ERAKUSKETA | EXPOSICIÓN

# Afrikan Murgiltzen:

## Afrika (Bir) kontatzen

(Re) contando África




**Afrikan Murgiltzen:**
**Afrika (Bir) kontatzen**
(Re) contando África

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

MÉDICOS DEL MUNDO

# Aurkezpena
## Presentación

**Afrikako kontinentearen inguruan bada imajinario bat, argazki partzialak, uniformeak eta negatiboak ateratzen dituena eta errealitatearen ikaskuntza osatugabea dakarrena, estereotipak iraunaraziz. Horrek, aurre iritziekin erlazionatzer garamatza, jarrera diskriminatzaileak errepikatuz.**

**Horregatik, proiektu honen helburua da ikastetxeetara, eta zehazki DBHko geletara, Afrikako lurraldeetako errealitatea hurbiltzea.**

**Afrikako Kontinenteari buruz kontatu digutenari eta kontatu ez digutenari buruz hausnartzeko proposamena da. Beste begirada batzuk birmarraztu eta koloreztatzeko bultzada ikuspegi afrozentrista batetik.**

**Bazenekien paneletan aurkituko dituzuen perstsonak Afrikako erreferenteak direla hainbat eremu profesionaletan eta gizate-mugimendutan?**

**Gehiago jakin nahi duzu? Eskaneatu QR kodea eta ezagutu istorioak.**

Existe un imaginario alrededor del continente africano que toma fotografías sesgadas, uniformes y negativas, que conlleva un aprendizaje incompleto de la realidad perpetuando estereotipos. Esto, nos lleva a relacionarnos desde los prejuicios, reproduciendo así actitudes discriminatorias.

Este proyecto, pretende acercar a los centros educativos, y en concreto a las **aulas de la ESO** realidades de los territorios africanos.

Es una propuesta para reflexionar sobre lo que nos han contado sobre el continente, un impulso a redibujar y colorear otras miradas desde un enfoque afrocentrado.

Sabías que las personas que os vais a ir encontrando en los paneles son **personas referentes africanas** de distintos ámbitos profesionales y de movimientos sociales?

¿Quieres saber más? Escanea el código QR y **descubre las historias.**






▲ **Afrikako mapa politikoa**

Mapa político de África

## *Phiona Mutesi*

***(Kampala 1996) Ugandako xake-jokalari bat da. 16 urte besterik ez zituela, Maistra izateko Hautagai bihurtu zen, 2010eko Xakeko Olinpiadetan aritu eta gero.***

*(Kampala 1996) es una jugadora de ajedrez de Uganda. Con tan solo 16 años, se convirtió en una Candidata a Maestra después de sus actuaciones en la Olimpiada de Ajedrez de 2010.*




GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
MÉDICOS DEL MUNDO



# Cheikh Anta Diop

(Senegal 1923 - 1986) idazlea eta antropologoa izan zen, eta gizateriaren jatorria eta Afrikako kultura aztertu zituen. Mendebaldeko gizartearen zibilizazio-oinarriei buruzko azalpena birdefinitzearen aldeko apustua egin zuen, Antzinako Egiptotik begiratuta.

(Senegal 1923 - 1986) fue un escritor y antropólogo, que estudió los orígenes de la humanidad y la cultura africana. Apostó por redefinir la explicación sobre las bases civilizatorias de la sociedad occidental, al enfocarse desde el Antiguo Egipto.

▼ **Olduvai Gorge inguruaren mapa, Tanzaniako iparraldean**

Mapa del área de Olduvai Gorge en el norte de Tanzania






GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
MÉDICOS DEL MUNDO






▲ **Afrikako mapa politikoa**

Mapa político de África

## Wangari Muta Maathai

**(Kenya 1940 - 2011) doktoretza (biologian) lortu zuen Ekialdeko eta Erdialdeko Afrikako lehen emakumea izan zen, eta Kenyako lehen emakume irakaslea. Green Belt Movement mugimendua abiarazi zuen nekazarien bizibideak mehatxatzen zituen deforestazioari aurre egiteko.**

(Kenia 1940 - 2011) fue la primera mujer en África Oriental y Central en obtener un doctorado (en biología) y la primera mujer profesora en Kenia. Inició el Green Belt Movement para combatir la deforestación que amenazaba los medios de subsistencia de la población agrícola.



GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
MÉDICOS DEL MUNDO

# Amadou Hampâté Bâ

(Mali, 1900 - 1991) idazle eta etnologo maliarra izan zen, ahozko tradizioaren aldezle, batez ere Peule ahozko tradizioarena. Honako hau esan zuen: “Afrikan, adineko pertsona bat hiltzen denean, liburutegi bat erretzen da”; esaera zahar bihurtutako esaldia.

(Malí 1900 - 1991) fue un escritor y etnólogo maliense defensor de la tradición oral, sobre todo de la tradición oral Peule. Dijo que “En África, cuando una persona anciana muere, una biblioteca arde”, frase que se transformó en proverbio.

▶ **Maliko mapa**
**Eskuizkribuen xehetasunak**
Mapa de Malí
Detalle de manuscritos

▼ **Timbuktuko Liburutegia**
Biblioteca de Tombuctú










GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
MÉDICOS DEL MUNDO




**▲ Kolonizazioaren aurreko Afrikaren mapa**
Mapa de África precolonial



## Carmen Pereira

**(Ginea-Bissau, 1937 - 2016) bere herrialdea askatzeko borrokaren lider nabarmena bihurtu zen. Bera da "bi kolonialismori aurre eginez" dioen esaldiaren egilea, emakume ginearrak independentziaren eta beren eskubideen alde egiten ari diren borroka bikoitzari buruzko esaldia.**

(Guinea-Bisáu, 1937 - 2016) se convirtió en una destacada líder de la lucha por la liberación de su país. Es la autora de la frase "combatiendo dos colonialismos", en referencia a la doble lucha de las guineanas por la independencia y por sus propios derechos.




GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
MÉDICOS DEL MUNDO




**▲ Maliko inperioaren mapa**
Mapa del Imperio de Malí



## Sundjata Keïta

**(Niani, 1205 — 1255) Maliko Mansa izan zen. Sundiatako Epopeia, Mandinga herriak belaunaldiz belaunaldi kontatua, haren bizitzan oinarrituta dago. Kouroukan Fouga aldarrikatzen du, esklabotasuna ezeztatzen duen idatzi gabeko konstituzioa, bakearen aldeko elkarrekiko nahia adierazten duena, eta Giza Eskubideen lehen adierazpenetako bat da.**

(Niani, 1205 — 1255) fue Mansa de Malí. La Epopeya de Sundiata, relatada de generación en generación por el Pueblo Mandinga, está basada en su vida. Proclama el Kouroukan Fouga, constitución no escrita que abole la esclavitud, expresa el deseo mutuo por la paz y es una de las primeras declaraciones de los Derechos Humanos.



GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
MÉDICOS DEL MUNDO



# *Fatima al-fihri*

**(Afrikako iparraldea, 800 - 880) emakume arabiar eta musulmana, IX. mendean Qarawiyyingo meskita fundatzeagatik ezaguna. Gaur egun martxan dago, eta Fezeko Qarawiyyingo Unibertsitatea (Maroko) deitzen zaio, munduko zaharrena.**

(Norte de África, 800 - 880) mujer árabe y musulmana, conocida por fundar en el siglo IX la mezquita de Qarawiyyin, operativa en la actualidad y conocida como la Universidad de Qarawiyyin en Fez, Marruecos, la más antigua del mundo.

▼ **Qarawiyyingo Unibertsitatea**
Universidad de Qarawiyyin

▼ **Taytu Betul**
**Njinga Mbandi**
**Yaa Asantewaa**
**Amina de Zaria**





GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
MÉDICOS DEL MUNDO

# Afrika Bibang

**(Algorta, 1975) gineatar jatorriko abeslari espainiarra da, euskaraz abesten duen lehen artista beltza izan zen. Txikitatik bere familiako musika beltzaren eragina izan du: Afrikako musika, soula, reggaea eta jazza besteak beste. Bere konpozizioetan euskaraz zein gaztelaniaz eta ingelesez abesten du, eta kontuan izaten ditu eduki sozial eta kulturalak.**

(Algorta, 1975) es una cantante española de ascendencia guineana que se convirtió en la primera artista negra en cantar en euskera. Desde niña tuvo influencia por su familia de música negra: música africana, soul, reggae y jazz entre otras. En sus composiciones, canta tanto en euskera como en castellano e inglés, incluye contenido social y cultural.

▶ **Quinndy Akeju**
Quinndy Akeju

▼ **Euskal Herriko mapa**
Mapa de Euskadi









GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
MÉDICOS DEL MUNDO






▲ **Victoria lakuaren mapa, Uganda**
Mapa del lago Victoria Uganda

◀ **Ellyanne Wanjiku**
**Portia Adu-Mensah**

## Hilda Flavia Nakabuye

**(Uganda, 1997) ingurumen- eta klima-eskubideen aldeko ekintzailea da. Klima-aldaketaren inguruko mugimenduan genero-berdintasun eta arraza-aniztasun handiagoa izatearen alde ere egiten du. Haren ingurumen-kezketako bat Victoria lakua salbatzea da; laku horrek inguruko herrialdeekin lotzen du Uganda.**

(Uganda, 1997) es una activista por los derechos ambientales y climáticos. También aboga por una mayor igualdad de género y diversidad racial en el movimiento por el cambio climático. Una de sus preocupaciones ambientales es salvar el lago Victoria, que conecta a Uganda con los países vecinos.




GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
MÉDICOS DEL MUNDO